# INAZIOTAR BIDEA BIZIKLETAZ
## EL CAMINO IGNACIANO EN BICI




## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Euskadiko Inaziotar Bidea oinez egiteko seinaleztatua dago, GR 120 gisa eta homologatutako marka zuri-gorrien bitartez. Gida honetan, zakuto eta guzti mendi-bizikletaz egiteko zailenak izan daitezkeen zatiak saihesteko hainbat aukera proposatuko dizkizugu. Kontuan izan zenbateko sasoi-puntua duzun zein bide egingo duzun erabakitzeko garaian.

Inaziotar Bidea ez dago bizikletaz egiteko seinaleztatua. Lor ezazu GPS bat edo zure smartphonean ibilbidea markatuko dizun app bat.

Ez ahaztu kaskoa, arropa islatzailea, giltzarrapo on bat, eguzkitarako betaurrekoak, eguzkitarako babesa eta bizikletan oinarrizko konponketak egiteko beharrezkoa den materiala.

Kontu handiz ibili errepideko zatietan.

Oinezko erromesengana hurbiltzen zarenean, mantsotu abiadura haien ondotik igarotzean.

*El Camino Ignaciano por Euskadi está señalizado como GR 120 por medio de marcas homologadas rojas y blancas para su realización a pie. En esta guía te proponemos diversas opciones para evitar los tramos que pueden resultar más complicados para una bicicleta de montaña con alforjas. Valora tu forma física a la hora de decidir el camino que vas a realizar.*

*El Camino Ignaciano para bicicletas no está señalizado como tal. Hazte con un GPS o una app. con el trazado a realizar en tu smartphone.*

*No olvides llevar casco, ropa reflectante, un buen candado, gafas de sol, protección solar y material necesario para realizar las reparaciones básicas.*

*Extrema la precaución en los tramos de carretera.*

*Cuando te acerques a peregrinos a pie, reduce la velocidad al pasar a su lado.*

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

Bizikletaz egiten ari garen Inaziotar Bidearen bigarren jardunaldi honetan, itzulbira bat egin beharko dugu egun gauden Aizkorri-Aratz mendilerroa saihesteko, eta hain justu beste aldean dagoen etapa-amaierara iristeko. Etaparen lehen zatian bidegorri-tarte luzeak eginez, eta errepidean barrena arreta handia jarriz bigarren zatian, Arlaban mendatera iritsiko gara. Beste aldean Ullibarri Gamboako urtegia dago, Arabarako ongi-etorria emango diguna, eta lautada zeharkatuko dugu Araiara iristeko etaparen amaieran.

*En esta segunda jornada del Camino Ignaciano en bicicleta, habrá que dar un rodeo para evitar la sierra de Aizkorri-Aratz donde nos encontramos, para alcanzar el final de etapa que se encuentra justo al otro lado. A lo largo de prolongados tramos de carril bici en la primera parte de la etapa y extremando la precaución por carretera en la segunda parte, coronaremos el puerto de Arlaban. Al otro lado se encuentra el pantano de Ullíbarri Gamboa, que nos dará la bienvenida a tierras alavesas para continuar atravesando la Llanada en busca de Araia al final de la etapa.*

**KMZ** — **GPX**

Inaziotar Bidea
Camino Ignaciano
Camí Ignasià
Camiño Ignaciano






Arantzazu > Araia

| | |
|---|---|
| **Distantzia:** *Distancia:* | 67 km |
| **Desnibela:** *Desnivel:* | 682 m |
| **Denbora, gutxi gor.:** *Tiempo aprox:* | 5h |
| **Zailtasuna:** *Dificultad:* | Ertaina *Media* |

| | |
|---|---|
| **Zolatutako bide-zorua:** *Firme pavimentado:* | 97 % |
| **Zolatu gabeko bide-zorua:** *Firme no pavimentado:* | 3 % |
| **Aldapa handieneko tarteak:** *Tramos de mayor pendiente:* | Arlaban mendatea Puerto de Arlaban |







## Bidezatia / *Tramo*
## ARANTZAZU > LANDA

km

**0 ARANTZAZU.** Santutegia bisitatu eta paraje lasai honetan egunsentiaz gozatu ondoren, atzoko jardunaldiaren amaieran gure onena ematea eskatu zigun errepidea jaitsi egingo dugu.

**9,8 OÑATI.** Oñatiko hirigunearen kanpoaldean dagoen bigarren biribilgunera iristen garenean, hirugarren irteera hartu behar dugu bidegorrian sartzeko eta udalerria zuzen-zuzen zeharkatzeko. San Migel elizaren albotik igarotzen garenean, bidegorriak aurrerantz jarraitzen badu ere guk eskuinerantz biratuko dugu eta hiriguneko irteerara eramango gaituen beste bat hartuko dugu. Arrasateraino joateko kilometroak GI-2630 errepidearen alboan doan bidegorri batean barrena egingo ditugu.

**21 ARRASATE/MONDRAGÓN.** Arrasatera iritsi baino pixka bat lehenago, hipermerkatu baten parean, bidegorria amaitzen da eta auzo-bide batean barrena jarraituko dugu. Hirigunera iristen garenean, Gipuzkoa, Garibai eta Araba etorbideei jarraitu beharko zaie. Azken horretan arreta jarri, gure ezkerraldean baterian aparkatuta dauden autoak dituen alboko bide batetik desbideratu behar baitugu. Bide hori auzo-bide batera iristen da, eta Aretxabaletara daraman bidegorria aurkituko dugu, Eliza Ebanjeliko Bataiatzailearen aurreko industria-nabe handi baten albotik abiatuz.

**25 ARETXABALETA.** Arrasateko irteeran hartzen dugun bidegorriak Aretxabaletara eramango gaitu galtzeko arriskurik gabe, eta bertako hirigunea zeharkatuko dugu ekialdetik eta pedalei ekinez Eskoriatzara iritsiko gara bidegorria utzi gabe.

**28 ESKORIATZA.** Olazarreko oinezkoentzako eta bizikletentzako tunelak Eskoriatzarako ongi-etorria egingo digu, eta udalerria inguratzen duen bidegorriari jarraikiz Arlaban Mendaterako igoerarantz bideratuko gara. Biribilgune handi baten alboko zebra-pasabide batera iristen garenean, bidegorria utziko dugu eta bigarren irteera hartuko dugu Gasteizerantz Gi-627 errepidean barrena, eguneko tarterik gogorrena izango denean arreta handia jarriz.

**37 ARLABAN MENDATEA.** Mendatera iristen garenean errepidearekiko atseden hartu ahal izango dugu, jatetxearen ezkerraldetik abiatzen den eta Araban barrena Landarantz eramango gaituen Ferrocarril Vasco Navarro trenbideko Bide Berdeari jarraituz.

**39,4 LANDA**

km

***0 ARANTZAZU.*** *Tras la obligada visita al santuario y disfrutar del amanecer en este tranquilo paraje, habremos de descender con la gravedad como aliada por la misma carretera que nos puso a prueba al final de la jornada de ayer.*

***9,8 OÑATI.*** *Una vez alcanzada la segunda rotonda que se sitúa a las afueras del casco urbano de Oñati, debemos tomar la tercera salida para incorporarnos al carril bici y cruzar en línea recta el municipio. Al pasar junto a la iglesia de San Miguel, aunque el carril bici por el que circulamos siga hacia adelante, giraremos a la derecha incorporándonos a otro que nos guiará hacia la salida del casco urbano. Los kilómetros que nos separan de Arrasate/Mondragón los recorreremos por un carril bici casi continuo que discurre paralelo a la GI-2630.*

***21 ARRASATE/MONDRAGÓN.*** *Poco antes de alcanzar Arrasate/Mondragón, a la par de un hipermercado, se termina el carril bici y continuamos por un camino vecinal. Una vez en el casco urbano, habrá que seguir por las avenidas Gipuzkoa, Garibai y Araba. Presta atención en ésta última, ya que debemos desviarnos por una vía lateral a nuestra izquierda con coches aparcados en batería. Esta vía desemboca en un camino vecinal que nos permitirá encontrar el carril bici que conduce a Aretxabaleta y que parte junto a una gran nave industrial frente a la Iglesia Evangélica Bautista.*

***25 ARETXABALETA.*** *El carril bici que tomamos a la salida de Arrasate/Mondragón nos conduce sin pérdida hasta Aretxabaleta, cuyo centro urbano bordearemos por su flanco este para seguir pedaleando hacia Eskoriatza sin separarnos del rojo asfalto.*

***28 ESKORIATZA.*** *El túnel peatonal-ciclable de Olazar nos dará la bienvenida a Eskoriatza que recorreremos por el carril bici que lo bordea y que será el último tramo antes de acometer la ascensión al Puerto de Arlaban. Cuando lleguemos a un paso de cebra junto a una gran rotonda, nos despedimos del carril bici para tomar la segunda salida en dirección Vitoria-Gasteiz por la GI-627, extremando la precaución en el que será el tramo más duro de la jornada.*

***37 PUERTO DE ARLABAN.*** *Al coronar el puerto podremos descansar durante unos kilómetros de la carretera para seguir la Vía Verde del Vasconavarro, que parte a la izquierda junto al restaurante, y que nos conducirá ya por tierras alavesas hacia Landa.*

***39,4 LANDA***

# EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Oñati Gipuzkoako hiribildu monumentalenetakoa da, eta Euskadiko udalerri politenetako bat. Bere hirigunearen barruan azpimarratzekoak diren eraikinetako batzuk honako hauek dira: Sancti Spiritus Unibertsitatea, Bidaurreta Monasterioa, San Migel Parrokia, Foru plaza, bertan udaletxea egonik, edo Santa Marina plaza, jauregi ederrez inguratuta dagoena

*Oñati es considerada como una de las villas más monumentales de Gipuzkoa y una de las localidades más bonitas de Euskadi. Algunos de los edificios que destacan dentro de su casco urbano son la Universidad Sancti Spiritus, el monasterio de Bidaurreta, la parroquia de San Miguel, la plaza de los Fueros donde se ubica el ayuntamiento o la plaza de Santa Marina rodeada de imponentes palacios.*





Arlaban mendatetik hurbil, gure eskuinaldean Leintz-Gatzagako Erdi Aroko hirigunea geratuko da. Gune historiko interesgarriaz gain, udalerri horren beste gune interesgarri batzuk ditu, hala nola Gatzaren Museoa edo txirrindularien zaindaria den Dorletako Amaren santutegia.

*Cerca del puerto de Arlaban, quedará a nuestra derecha el coqueto casco medieval de Leintz-Gatzaga. Además de su interesante núcleo histórico, este municipio alberga otros puntos de interés como el Museo de la Sal o el Santuario de Dorleta, patrona de los ciclistas.*

Etapa hau udan egiten baduzu, ez galdu aukera Ullibarri-Gamboako urtegiaren alboan Landan eta Garaion egokituta dauden hondartzetan freskatzeko edota atseden hartzeko.

*Si realizas esta etapa durante los meses de verano, no pierdas la oportunidad de refrescarte dándote un baño o simplemente tomar un descanso en una de las playas de interior acondicionadas en los alrededores de Landa y Garaio, junto al embalse de Ullíbarri-Gamboa.*





Aizkorri-Aratz Parke Naturala gune babestua da. 1994. urtean katalogatu zuten horrela, eta Europako Natura 2000 Sarean sartuta dago. Parke Naturalaren barruan, Euskadiko pagadirik handienetako bat dago, eta fauna- eta flora-biodibertsitate handia bizi da bertan. Espezieen artean, batzuk mehatxupean daude (sai zuria, adibidez). Araian Parkearen Etxea bisita dezakezu, eta bertan naturaguneari buruzko mota guztietako informazioa emango dizute.

*El Parque Natural de Aizkorri-Aratz es un espacio protegido catalogado como tal en 1994 e incluido en la Red Natura 2000 europea. Alberga una de las mayores masas de hayedo de Euskadi, que dan cobijo a una gran biodiversidad de fauna y flora, entre la que se encuentran varias especies amenazadas como el alimoche. En Araia puedes visitar la Casa del Parque donde te proporcionarán todo tipo de información sobre el espacio natural.*

# Bidezatia / *Tramo*
## LANDA > ARAIA

km

**39,4** **LANDA.** Bide berdeak Landan errepidea gurutzatzen duenean, hura utzi eta A-3002 errepidetik jarraituko dugu, eta jatetxea igaro ondoren ezkerralderantz desbideratuko gara, A-3014 errepidetik joanez Marieta/Ozaeta noranzkoan. Ullibarri Gamboa urtegiaren alboan egokitutako eremuen albotik igarotzen den errepide horrek Marieta ingurura eramango gaitu, bidegurutze batera iritsi arte, eta bertan ezkerralderantz egingo dugu Ozaetara iritsiz.

**49,3** **OZAETA.** Hainbat zerbitzu dituen Ozaetako hirigunea gurutzatuko dugu eta A-3012 errepidetik jarraituko dugu, eta nekazaritza-lurzati handiak zeharkatuz eta hainbat herri txiki eta eder (Hermua, Larrea, Axpuru, Narbaiza, Gordoa eta Galarreta) igaro ondoren, Zalduondora iritsiko gara.

**62,5** **ZALDUONDO.** Zalduondon, elizaraino jarraitu beharko dugu eta hemen errepidea utziko dugu behin betiko. Elizaren ondoren ezkerralderantz biratu behar dugu eta auzo-bide bati jarraituko diogu, iparralderantz jarraitzen duena Barnealdeko Done Jakue Bidean barrena, baina haren aurkako noranzkoan. Asfaltatuta dagoen pista hilerriaren ondotik eta Arabako zaharrenetakoa den Aistrako San Julian eta Santa Basilisa baselizaren albotik igarotzen da. Gaztandegi baterako desbideratzea igaro ondoren, bidegurutze batera iritsiko gara eta eskuinalderantz joango gara Araiako noranzkoan.

**67** **ARAIA**

km

**39,4** ***LANDA.*** *Cuando la vía verde cruza la carretera en Landa, debemos abandonarla para seguir por la A-3002 y, al rebasar el restaurante, desviarnos a la izquierda por la A-3014 dirección Marieta/Ozaeta. Esta carretera que discurre junto a las áreas acondicionadas junto al pantano de Ullíbarri Gamboa, nos conducirá cerca de Marieta hasta alcanzar un cruce en el que seguiremos por la izquierda para llegar a Ozaeta.*

**49,3** ***OZAETA.*** *Cruzamos el centro urbano de Ozaeta con diversos servicios, para continuar por la A-3012 que, entre grandes extensiones de parcelas agrícolas, irá atravesando pequeños y encantadores pueblos como Hermua, Larrea, Axpuru, Narbaiza, Gordoa y Galarreta hasta alcanzar Zalduondo.*

**62,5** ***ZALDUONDO.*** *En Zalduondo, debemos seguir hasta la iglesia donde abandonaremos definitivamente la carretera. Una vez rebasada, debemos girar a la izquierda para continuar por un camino vecinal que se dirige al norte por el Camino de Santiago del Interior, aunque en sentido contrario a éste. La pista asfaltada pasa junto al cementerio y cerca de la ermita de San Julián y Santa Basilisa de Aistra, una de las más antiguas de Álava. Tras pasar el desvío a una quesería, llegaremos a un cruce en el que habremos de girar a la derecha en dirección a Araia.*

**67** ***ARAIA***

www.euskadituriso.eus

# KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

- Pentsatzen ari bagara gure bizikletarekin GR 120ren trazadurari jarraitzea (oinez egiteko diseinatuta dago), kontuan izan behar dugu bizikletatik jaitsi eta Urbiarako igoeran tarte handi bat oinez egin beharko dugula. Aizkorri-Aratz Parkean baimenduta dago bizikleta erabiltzea, baina soilik pistak erabiliz, haietatik aldendu gabe.
- *Si estamos valorando seguir el trazado del GR 120 (diseñado para seguirlo a pie), con nuestra bicicleta, hay que tener en cuenta que deberíamos bajarnos de la bicicleta y empujarla un buen tramo en la subida a Urbia. En el Parque de Aizkorri-Aratz está permitido usar la bicicleta pero únicamente por las pistas, no debiendo abandonarlas.*

- Oñatiko irteeran, erne egon behar duzue San Migel elizaren albotik igarotzen zaretenean, bidegorria utzi behar dugulako eta eskuinaldean dagoen beste bidegorri bat hartu behar dugulako.
- *A la salida de Oñati, atención al pasar junto a la iglesia de San Miguel, ya que habrá que dejar el carril bici por el que circulamos para seguir por otro que sale a nuestra derecha.*

- Eskoriatzako irteeran erne egon beharko dugu. Zirkulatzen ari garen bidegorriak aurrerantz jarraitzen du, baina ez guk egin behar dugun noranzkoan. Bidegorria utzi eta errepidetik jarraituko dugu Arlabanerantz.
- *En la salida de Eskoriatza habrá que prestar atención. El carril bici por el que circulamos continúa, pero no en la dirección que debemos seguir. Lo dejaremos para seguir hacia Arlaban por la carretera.*

- Agurainen eta Zalduondon erromesen aterpe bana dago, eta Done Jakue Bideko nahiz Inaziotar Bideko egiaztagiriekin ostatu har daiteke.
- *En Salvatierra-Agurain y en Zalduondo existen sendos albergues de peregrinos que permiten hospedarse tanto con la credencial del Camino de Santiago como con la del Camino Ignaciano.*

- Vasco Navarro Trenbidearen Bide Berdeak aukera ematen dizu Arabako hiriburura iristeko 15 km baino gutxiago eginez, zabor-legarrezko lurzoru erosoaren gainean, trenbide zahar eta ospetsu horren trazadurari jarraituz.
- *La Vía Verde del Vasco-Navarro te permite acercarte a la capital alavesa en menos de 15 km sobre cómodo firme de todo-uno por el trazado por el que discurría este antiguo y famoso ferrocarril.*

# TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Turismo Bulegoa<br>*Oficinas de Turismo* | |
| Oñati | 943 78 34 53 |
| Eskoriatza | 943 71 54 53 |
| Leintz-Gatzaga | 943 71 47 92 / 943 71 47 46 |
| Arabako Lautada/*Llanada Alavesa (Agurain/Salvatierra)* | 945 302 931 |
| Debagoienako Informazio Zentroa (Arantzazu)<br>*Centro de Información de Debagoiena (Arantzazu)* | 943 71 89 11 |
| Mancomunidad de Debagoiena (Arrasate/Mondragón)<br>*Debagoienako Mankomunitatea (Arrasate/Mondragón)* | 943 79 64 63 |
| Informazio puntua. Garaioko Parke Probintziala<br>*Punto de Información. Parque Provincial de Garaio* | 695 782 498 |
| Zalduondoko etnografia-museoa (igandetan irekita)<br>*Museo etnográfico de Zalduondo (domingos abierto)* | 945 304 393 |
| Aizkorri-Aratzeko Parketxea (Araia)<br>*Parketxe de Aizkorri-Aratz (Araia)* | 945 386 964 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |






## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

• Inaziotar Bideko erromes-egiaztagiria Loiolako Santutegian eskura dezakezu, 0,5 euroren truke. Aldez aurretik jasotzea gomendatzen dizugu.

• *Puedes conseguir tu credencial de peregrino del Camino Ignaciano en el mismo Santuario de Loyola por el módico precio de 0,5€. Te recomendamos recogerla con cierta antelación.*

• Urretxuko aterpetxea Santa Barbara ermitaren ondoan kokatuta dago, hirigunetik bi kilometro ingurura, mendebaldera.

• *El albergue de Urretxu se encuentra junto a la ermita de Santa Barbara, a unos dos kilómetros al Oeste del casco urbano.*

• Udanatik Oñatirako jaitsieran arreta handia jarri eta abiadura murriztu. Bertan hainbat bihurgune itxi daude, "ferrak" izenez ezagunak direnak, eta ezustekoa emango digute behar baino abiadura handiagoan jaisten bagara.

• *Extrema la atención en la bajada a Oñati desde Udana y reduce la velocidad. Hay varias curvas cerradas que en la zona se conocen como "las herraduras" y que podrían darnos un buen susto si bajamos a más velocidad de la aconsejada.*



## TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Turismo Bulegoa<br>*Oficina de Turismo* | |
| Loyola | 943 15 18 78 |
| Antio/*La Antigua* (Zumarraga) | 943 72 20 42 |
| Mirandaola (Legazpi) | 943 73 04 28 |
| Oñati | 943 78 34 53 |
| Loiolako Santutegia<br>*Santuario de Loyola* | 943 025 000 |
| Debagoienako Informazio Zentroa (Arantzazu)<br>*Centro de Información de Debagoiena (Arantzazu)* | 943 71 89 11<br>943 79 64 63 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |






## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Loiolako Santutegiko monumentu-multzoa San Ignazioren jaiotetxearen inguruan eraikitako hainbat eraikinez osatuta dago. Eraikin horien artean, basilika nabarmentzen da, askok "euskal Vatikano" txikitzat hartzen dutena, kupula handientsu batekin eta arkupe handi churrigueresko batekin.

*El complejo monumental del Santuario de Loyola está compuesto por una serie de edificios construidos en torno a la casa natal de San Ignacio. Entre ellos destaca la basílica, por muchos considerada como el pequeño "Vaticano vasco", con una majestuosa cúpula y un amplio pórtico de estilo churrigueresco.*





Mirandaolako Burdinolak bere makineria erabilgarri dauka oraindik, eta udako igandeetan martxan jarri ohi dute, Gipuzkoan bakarra den erakustaldia eginez. Olagizonek, XVI. mendean egiten zuten bezala, gori-gori dagoen burdina nola kolpekatzen duten ikusi nahi baduzu, gomendatzen dizugu bisita gidatu bat erreserbatzea.

*La ferrería de Mirandaola mantiene intacta la maquinaria y los domingos de los meses de verano se suele poner en marcha en una exhibición única en Gipuzkoa. Si no te quieres perder cómo los ferrones golpean el hierro al rojo vivo tal y como se hacía en el siglo XVI, te recomendamos reservar una visita guiada.*

Arantzazun, leku eder honetan 1469an eraiki zen lehen ermita, Ama Birjina handik hurbil agertu zelako. Hainbat mendez hainbat sute, berreraikuntza eta zabalkuntza izan ondoren, egungo santutegi ederra 1950eko hamarkadan egin zen, eta bertan nazioartean ospe handia duten hainbat artistak parte hartu zuten, hala nola, Jorge Oteiza, Eduardo Chillida eta Néstor Basterretxeak.

*La primera ermita erigida en este hermoso lugar, Arantzazu, en 1469 se construyó a raíz de la aparición de la Virgen a escasos metros. Tras diversos incendios, reconstrucciones y ampliaciones a lo largo de los siglos, el majestuoso santuario actual fue realizado en la década de 1950 y en él tomaron parte diversos artistas de fama internacional, tales como Jorge Oteiza, Eduardo Chillida o Néstor Basterretxea.*





Zumarragako Antiguako Ama Birjinaren ermitarako bisitaldia ezinbestekoa da Inaziotar Bidea egiten duen erromes ororentzat. Barruko estalkiaren zurezko egitura ikusgarria nabarmentzen da batez ere. Ermitaren edertasuna dela-eta, "ermiten katedrala" dela esan ohi da. Hirigunetik kilometro bat baino zertxobait gehiagora kokatuta dago ekialdean, hilerrira doan bidea hartuta. Ermita eta bertako interpretazio-zentroa bisitatzeko eta inguruak eskaintzen dituen ikuspegi panoramikoak ikusteko, 200 metroko desnibela gainditu beharra dago Zumarragatik, baina ahalegina merezi du.

*La visita a la ermita de la Antigua en Zumarraga se antoja indispensable para cualquier peregrino que realice el Camino Ignaciano. Destaca, sobre todo, el imperioso entramado de madera de su cubierta interior y debido a su belleza es conocida como "la catedral de las ermitas". Se encuentra a poco más de un kilómetro al Este del casco urbano tomando el camino que lleva al cementerio. La visita al propio templo, su centro de interpretación y las vistas panorámicas que ofrece bien merecen el esfuerzo de salvar los 200m de desnivel que la separan de Zumarraga.*

## Bidezatia / *Tramo*
## ZUMARRAGA > ARANTZAZU

km

**16,7 ZUMARRAGA.** Zumarraga eta Urretxuko udalerrien hiriguneak Urola ibaiak banantzen ditu. Bidegorriak hirigune horretan barrena eramango gaitu, non zerbitzu guztiak eskura izango ditugun. Zumarragatik ateratzerakoan Orbegozoren eta Mugitegi Industrialdearen artean igaroko gara, eta trenbidearen albotik jarraituko dugu. Bihurgune pare bat egin ondoren, bidegorria Legazpiko hirigunera iritsi baino lehentxeago amaitzen da.

**21,7 LEGAZPI.** Hirigunea gurutzatzen dugu bidegorriaren beste tarte txiki bat hartuz Andre Maria Zeruratzea elizaren ondotik igaroz. Hirigunetik kanpo, industria-pabilioi batzuen albotik igaroko gara eta pasealeku eder bat hartuko dugu, Urola ibaitik aldendu gabe Mirandaolako atseden-lekura eta burdinolara iritsiz.

**24 MIRANDAOLA.** Mirandaola igaro ondoren, Telleriarte auzora iritsiko gara, eta bertan ikusiko ditugu Erreizabal baserria, Artzaintzaren Ekomuseoaren egoitza dena, eta beste burdinola bat, Elorregikoa. Hemendik aurrera, Urola ibaitik eta GR 120ren marka gorri eta zurietatik aldenduko gara etaparen bigarren zatiari ekiteko; orain errepidean barrena joango gara eta GI-2630 errepidetik Udana mendatera igoko gara. Behin goian gaudela, Oñatiraino jaitsiko gara errepideari jarraikiz, eta jaitsieran aurkituko ditugun bihurguneetan kontu handiz joango gara.

**34,4 OÑATI.** Oñatira iristen garenean lehendabizi biribilgune batera iritsiko gara, eta ondoren beste batera, non Arantzazura joateko jarraibideak kontuan izango ditugun. Etapa-amaiera honetan egunaren igoerarik handiena egingo dugu, GI-3591 errepideari jarraikiz santutegira iritsi arte.

**43,2 ARANTZAZU**

km

***16,7 ZUMARRAGA.*** *Los cascos urbanos de los municipios de Zumarraga y Urretxu se encuentran separados por el curso del río Urola. El propio carril bici nos guiará por toda esta zona urbana donde disponemos de todos los servicios. A la salida de Zumarraga pasamos entre Orbegozo y el Polígono Industrial Mugitegi y continuamos junto a las vías de tren. Tras hacer un par de quiebros, el carril bici acaba poco antes de alcanzar el casco urbano de Legazpi.*

***21,7 LEGAZPI.*** *Atravesamos el centro urbano retomando otro pequeño tramo de carril bici junto a la iglesia de Nª Sra. de la Asunción. Fuera ya del casco urbano, se pasa junto a una zona de pabellones industriales y se toma un bonito paseo que nos conduce sin separarnos del río Urola hasta el área recreativa y ferrería de Mirandaola.*

***24 MIRANDAOLA.*** *Tras rebasar el complejo de Mirandaola, alcanzamos el barrio de Telleriarte, donde se encuentran el caserío Erreizabal, que alberga el Ecomuseo del Pastoreo y otra ferrería, la de Elorregi. A partir de aquí, nos separamos del río Urola y de las marcas rojas y blancas del GR 120 para acometer la segunda parte de la etapa que continúa por carretera y que comienza con una suave ascensión al puerto de Udana por la GI-2630. Una vez coronado el puerto nos dejaremos llevar por la gravedad hasta Oñati siguiendo esta misma carretera y extremando la precaución en las curvas cerradas que se nos presentarán en la bajada.*

***34,4 OÑATI.*** *Al llegar a Oñati alcanzamos primero una rotonda y seguidamente otra en las que debemos seguir las indicaciones hacia Arantzazu. Este final de etapa nos depara la ascensión más pronunciada del día siguiendo la carretera GI-3591 hasta alcanzar el santuario.*

***43,2 ARANTZAZU***

